



Gobernuaren Bizkaiko Ordezkariordeztzak, Lurralde Politikako eta Memoria Demokratikoko Ministerioari atxikita dagoenak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean emandako eginkizun guztiak betetzen ditu, eta ekimenak koordinatu, gainbegiratu eta bultzatzen ditu Estatuko Administrazio Orokorraren eta horrek Bizkaian dituen erakunde publikoen zerbitzu guztiak hobetzeko.

Ematen ditugun zerbitzuak

- | | |
|--|---|
| 1 Herritarrentzako informazioa eta arreta. | 10 Farmazia ikuskaritza. |
| 2 Emakumeen aurkako indarkeria. | 11 Kanpo osasuna. |
| 3 Espainian dauden etorkinentzako zerbitzuak. | 12 Landare osasuna: inportazioko/esportazioko kontrol fitosanitarioa. |
| 4 Enpleguarekin edo emigranteekin lotutako zerbitzuak. | 13 Albaitaritza osasuna: inportazioko/esportazioko albaitaritza kontrola. |
| 5 Unibertsitate-tituluak legeztatzea eta unibertsitate-tituluak eta profesionaltasun-ziurtagiriak jaso, erregistratu eta ematea. | 14 Itsas-arrantza. |
| 6 Lehergailuekin eta pirotekniarekin zerikusia duten espedienteak bideratzea. | 15 Tasak itzultzea. |
| 7 Desjabetzeak. Balio justuaren espedienteak bideratzea. | 16 Administrazio zehapenei dagozkien espedienteak. |
| 8 Estatuaren esku-hartzea larrialdietan edo hondamendietan. | 17 Administrazio baimenak eskatzea. |
| 9 Nazioarteko txertaketa. | 18 Enpresentzako eta beste administrazio batzuentzako zerbitzuak. |

Kalitate-konpromisoak

- 1 Atzeritartasun-baimenak berritzeko eskaera telematikoak, aurkeztu eta gehienez ere 10 egun balioduneko epean grabatzea.
- 2 Ikasketetarako, tratamendu medikorako eta adingabeen oporretarako bisen gobernu-txostenak, eskaera egin eta gehienez ere 15 egun balioduneko epean tramitatzea.
- 3 Nazioarteko adopzioetarako gobernu-txostenak, eskaera egin eta gehienez ere 15 egun balioduneko epean tramitatzea.
- 4 Adituek 100 kg-tik gorako artifizio piroteknikoekin egingo dituzten ikuskizunetarako baimen eskaerak ebaztea, nahitaezko txostena jaso eta gehienez ere 10 egun balioduneko epean.
- 5 Edozein bidetatik jasotako kexei, Gobernuaren Ordezkariordeztan jaso eta gehienez ere 15 egun balioduneko epean erantzutea.
- 6 Itzuli diren Emigranteen Ziurtagiriak, gehienez ere 15 egun balioduneko epean ematea, beharrezko dokumentazio guztia izanez gero.
- 7 Itzulitako espainiarren behar bereziei erantzuteko txostena egitea eta laguntzen espediente bidaltzea (1493/2007 Errege Dekretua), aurkeztu eta gehienez ere 15 egun balioduneko epean ebazteko.
- 8 Kaleratzeagatiko epaketetan izapide-aldiko soldaten eskaerak tramitatzea eta ebazpen proposamena, aurkeztu eta gehienez ere 10 egun balioduneko epean prestatzea, tramitatzeko beharrezko dokumentazio guztia izanez gero.
- 9 Larrialdiek edo hondamendiek eragindako kalteei aurre egiteko laguntzak eta diru-laguntzak eskatzeko espedienteak, aurkeztu eta gehienez ere 30 egun balioduneko epean bideratzea eta ebaztea, tramitatzeko beharrezko dokumentazio guztia izanez gero.
- 10 Gomendatutako txertoak, kontsulta medikoan egon eta gehienez ere egun baliodun batean jartzea.
- 11 Informazioa eskatzen duten mezu elektroniko guztiei, Atzeritartasunekoak izan ezik, mezua jaso eta gehienez ere 3 egun balioduneko epean erantzutea.
- 12 Atzeritartasunari buruzko informazioa eskatzen duten mezu elektroniko guztiei, mezua jaso eta gehienez ere 7 egun balioduneko epean erantzutea.
- 13 Genero-indarkeriaren biktimei laguntzea, eskatu eta gehienez ere 2 egun balioduneko epean.
- 14 Genero-indarkeriak eragindako hildakoen (emakumea eta/edo seme-alabak), larri zauritutakoen eta genero-arrazoiek edo sexu-arrazoiek eragindako erailketen edo giza hilketen fitxa eta jarraipen-txostena egitea, eta plataforman grabatzea, jakinarazi eta gehienez ere 2 egun balioduneko epean.

Kartaren unitate arduraduna:

Gobernuaren Bizkaiko Ordezkariordeztako Idazkaritza Nagusia

Federico Moyúa plaza, 5 - 48071 Bilbao

944 509 016

secretario_general.bizkaia@correo.gob.es

https://mpt.gob.es/portal/delegaciones_gobierno/



Kontsultatu hemen
zerbitzu-kartaren testu osoa

Argitaratzen du: Lurralde Politikako eta
Memoria Demokratikoko Ministerioa
NIPO: 127-24-007-7